

ANGIO HITZAREN ZENTZUAZ

1976-VII-30

Juan San Martín

Txosten honen bidez, *Angio* hitzaren zentzuaz, lehendik zekigunaren gainera ez dut ezer berririk agertu nahi. Ezta hori nere asmoa. Izatekotan ere lehengo bera gehiago indartu. **ANGIO** hitza argi dator Azkue zenaren hiztegian: *dehesa, lugar de pasto acotado : pâtiz, lieu de pacage entouré de bornes*; hark Bergaran, Lenitzen eta Oinatik jaso zuenez (1). Mitxelenak gauza bera esango digu *Apellidos vascos* liburuan, Angiozar deituraz ari delarik (2). Baina, hala ere, nik ere zalantzak izan nituen, Angiozarri buruzkoan, Elgetako monografiagintzan niharduala; eta hizkuntzarentzat historiak ezertarako balio baldin badu, hemen utziko dut helburuaren argitasunerako erabili nuen materiala.

ANGIO hitza urri ezagutzen da, Azkuek nonbait mendealdeko euskalkian soilik aurkitu zuen, Angiozartik hurbil hain zuzen. Elgetar gehienak "Aingeruzar" bezala erabiltzen dute, eta Eibarren bertan ere zaharretarik ez gutik. Kontuan izanik *Angio* guti ezaguna dela eta Angiozarko parrokia San Migel Arkangeluaren izenekoa dela, Angiozar ala Aingeruzar, zalantza izatekoa zen eta honek eraman ninduan puntu hau arretaz aztertzeraz.

Era honetako zalantza izan zuen Iñaki Linazasorok ere, bere *La otra Guipúzcoa* liburuan agertzen denez. Hara bertan zer dion: "*Guardando fidelidad a la toponimia, Anguiozar significa "viejo pastizal". Los lingüistas, en cambio, consideran sofisticación de "Aingeru Zar" o "Angel Viejo", como en su conversación habitual, la llaman los indígenas. Pudiera ser un arcaísmo definitorio, basado en el patronazgo de San Miguel Arcángel.*" (3)

(1) R.M. de Azkue, *Diccionario Vasco-Español-Francés* (Bilbao, 1905).

(2) L. Michelena, *Apellidos vascos* (San Sebastián, 1953), 42 orr.

(3) I. Linazasoro, *La otra Guipúzcoa* (Zarauz, 1959), 117 orr.

Behar bada San Migel Arkangeluaren antzerakoa izatetik sortu zezakean nahaste hau. Baina bazen besterik ere. Saindu izenetan “-zar” atzizkidunak ezagutzen nituen eta behar nuen horiek ere begiratu. Oso ezaguna da Trebiñoko San Martín de Zar, Arabako eskualdean egonagatik bere kondepe-kotasunak Gaztelaniarentzat eraman zuen lurraldea. Bertan, XIII. mendean ba omen zen Zahar (h ta guzi) izen soilez ezagutzen zen toki bat, oraingo San Martín de Zar-etik ez hain urruti, G. López de Gereñuren lanetan agertzen denez (4). Honez gainera badira Araban bertan Santa Teodosia-zarra (San Vicente de Arana) eta San Cristobal-zarra (Okina). Ifaraldeko Baxe-Nabarren bada Donazaharre (St.-Jean-le-Vieux) deritzan herrixka bat erromaniko ataridun eliza duena. Gipuzkoa partean, nik dakidanik, San Juan-zar izeneko baserri bat bada Lenitzeko Gatzagan. Eta Bizkaian badira Ereñozarko San Migel edo Ereñozar (erdaraz San Miguel de Ereñozar esan ohi dena) (Ereño), Santa Marina-zar (Zaldibar) eta Santiago-zarra edo Santiozar (Lemoa). Azken hau muino baten gainean dago, eta hara, eibartar mendizale adiskide bati behin zer gertatu zitzaion: handik igaro beharrean aurkitzen zenez, baina toki haiek ongi ezagutu ez, galde egin zuen hango baserri batean: —Aizu; hemen, Santiago-zarra nun da? Baita ongi erantzun ere: —Santiago-zarra? Hura aspaldi hil zen. Baina toki izenak oraindik han jarratzen du.

Hoiak ikusirik eta elgertar gehienei “Aingeruzar” entzun, nork ez zituen zalantzak izango?

Dena dela, ongi aztertzea merezi zuela iduritu zitzaidan eta hauek dira agiri bilketaren ondorioak.

Angiozar, agirietan, hamabosgarren mendearen erdialde-
ra agertzen zaigu lehen aldiz, deituraz eta elizaurre (anteiglesia) bezala.

Angi hitza Fr. Pedro Astarloak dakar *Urteco domeca gustietaraco verbaldi icasbidecuac* liburuan, eta Aita P. Aranguren-ek jaso zuen durangoar idazle honi buruzko hitzaldi batean, gero “Egan” aldizkarian argitaratuko zena (5).

(4) G. López de Guereñu, “*Mortuorios*” o *despoblados*. Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos de País, XIV (1958), 208 orr.; eta egile beraren *Pueblos alaveses*. Bol. Sancho el Sabio, XIII (1969), 73 orr.

(5) Fr. P. Astarloa, *Urteco domeca gustietaraco verbaldi icasbidecuac* (Bilbao, 1818), bigarren liburuaren VI orrialdean. Eta, P. Aranguren, *Aita Astarloa, euskal idazlea*, Egan, vol. IX (1957), 5-6 zenbakiaren 320. orrialdea.

García Carraffa anaiak *El Solar Vasco-Navarro* delako heraldikazko lanean, Garostegi deituraren arma agiriak ematean, "*Anteiglesia de Anguipia, jurisdicción de la villa de Elgueta*" (6) aipamena dakarte. Ez du ez urterik eta ez agiri iturririk ematen, baina seguruenik Angiozar bera da eta ez beste.

Elorrioko hiru baserrik dute *Angio* izena (orokorreaz inoiz *Angioak* esan ohi direnak), herritik Gazetara bidean. Elorrio bertatik Angiozarrerako bidean hain zuzen. Gainera, alde horretxetan du Gipuzkoak Hibaizabalko uraldera duen lurralde bakarra, Sagasta deritzan baserriarekin. Honegatik, Elorriok nahikoa etxeko du, edo izan du, hitz hori. Baina Beasainen dugunagatik ezin holakorik esan. *Angio*, Beasaingo errota baten izena ere bada, eta bertatik hurbil *Angiozar* izeneko toki bat (7). Beraz, hitz hau, noizbait hedatuagoa izana da.

Hain urri eta hain inguru berezian aurkitze honek, Elgetari dagokionez, bere arrazoiak izan ditu. Gogoan izan 1928. urtera arte Angiozar Elgetaren hauzoa izan dela, gaur egun Bergarakoa bada ere. Jakinekoa da Gipuzkoako baso eta larradi guziak herrienak zirela oro. Lehengo mendeetan herri-lurrak eta herri-basoak zirenean, herri izen berak ere esan nahi zabalagoa zuenean, zeren lurrok, batez ere larradiok, artzaingoaren aldi hartan herri askorenak izaten ziren eta geroago ere hala jarraitu du. Abereak libre bazkatzen ziren gaberako bakoitza bere saroi edo kortetara itzultzeko. Baina Erdi-aroaren azken partetik bestelakoa izan da Elgeta eta Elgetaren barneko genuen Angiozar bera.

Elgeta, 1335ean izendatu zen hiri bildutzat ("*Carta-puebla*" delakoa hartuaz), eta Mondragoe bezala, Gasteizko foruarekin onartua (beraz, zergetatik libre), Bizkaiko mugan eta Gaztelako erregea Bizkaiarekin hain ongi konpontzen ez zen garaian, erraz konprenitzekoa da zergatik eman zizkion eskubide bereziok. Hala ere, Elgeta zegoen tokian zegoelako, ezin zuen hiria jendez hornitu. Izan ere, XII. menderako sartuaz joan ziren urindarrez eraginikako burdinolak eta hauei eta hauek bere inguru sortzen zuten eskulangintza eta merkatalgoari esker lortzen zuten garai hartako hiribilduak behar

(6) A. y A. García Carraffa, *El Solar Vasco-Navarro*, tomo tercero (3ª edic., San Sebastián, 1967), 375 orr.

(7) S. de Múgica, *Geografía General del País Vasco-Navarro* (t. Guipúzcoa. Barcelona, 1916), 84 eta 521 orr.

zuten jendetza. Baina Elgeta mendi lepo batean eta Angiozar hegai baten maldan, ez zuten burdinolak mugitzeko hainako hibairik. Honegatik, hiria jendez hornitu ezinak, handik lasterrera, 1376an, toki hartan hiri-bildua osatuko bazen, erregeak lurraldea mugatzearen pribilegioak eman behar izan zituen. Hau da hain zuzen *angioa*, eta hemendik sortzen zaio izen hori. Elgeta herri kaskotik aparte dagoen harana da Angiozar, Elgeta berak baino lurralde handiagoak eta baserri gehiago dituen. Angi edo larradi mugatu hau, izatez herri-lurra zen, baina Elgeta edo bere lurraldean bizi zirenentzat berezirik. Gipuzkoako larradietan edozein herritako abereak sartzea libre zen bezala, Elgetan beste inongorik ezin sar zitekean. Honela zion erregeren eskubideak: "...*el dicho término mandamos vos que non consintades á ningunos que entren á pacer con sus ganados.*" (8).

A. Cillán Apalategiren *La Comunidad Foral de Pastos en Guipúzcoa* (9) delako liburua begiratzen badugu, Hondarribian bakarrik aurkituko dugu holako eskubide berezirik. Gipuzkoako mugen bi muturretan hain zuzen, lurak zaintzeko balira bezala.

Baina, Angiozarrek lur eskubide horiek lortuezkerokoak ote du bere izena? Hala dirudi. Agirietan Angiozar lehen aldiz aurkitu dudana, 1448an da, Mondragoe hesipean jarri eta erre zuten elgetarretako baten deitura bezala, Juan de Angiozar (10). Bigarren agiria elizaren aipamenezkoa da, 1487koa. Geroztik maiz aipatzen da, bai hauzo bezala eta bai bertako deitura bezala. Eta Elgetan aurkitu ditudan herriko Ordenanzarik zaharrenak 1510. urtekoak dira eta "valle de Angiozar" bezala azaltzen da (11).

Bildu ditudan agirietatik eman nezakean argi bakarra hau da: Angiozar hauzoaren izena XIV. mendean lurren eskubideetatik deituaz sortutakoa daitekeala. Eta, hitzaren zentzua, bere etimologia alde batera utzirik, Azkue eta Mitxele-

(8) J. San Martín, *Elgueta con Angiozar y Ubera* (San Sebastián, 1975), 148 orr.

(9) A. Cillán Apalategui, *La Comunidad Foral de Pastos en Guipúzcoa* (San Sebastián, 1959).

(10) J. C. de Guerra, *Oñacinos y Gamboínos, rol de banderizos vascos* (San Sebastián, 1930), 24 orr.

(11) J. San Martín, *Elgueta...*, liburuaren 148/158 orrialdeetan argitaratzen dira 1567ko Ordenanzak; 1510ekoei zatia falta zaielako utzi ziren argitaratu gabe, baina 1567koa bertatik ateratako kopia berdina da.

nak eman dioten bera dela, jabetasun berezia duen larradi mugatua. Elgetako toki berezi honetan agertzen denez behinikpehin.

Otoi: argi gelditu bedi argitasunok izenaren tokikotasuna eta bere esan nahia edo zentzuna adiarazten dutela, baina bere etimologia, jatorri edo nondikakoa beste gauza bat dela eta aparteko estudio bat eskatzen duela.